

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

327 - 2024ko IRAILA

LLK



LARRAUN,
NAFARROAKO HERRIARTEKO
TXAPELDUN!

MAILOPEren aldeko kontzertua!

Ene Kantak-en kontzertua, **urriaren 5ean** izango da, **Lekunberriko kiroldogian**. Mailope aldizkariak aurrera egin dezan aurten kultur elkarteak antolatzen duen bigarren ekitaldia da, Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberriko udalen laguntzari esker. Animatu!

KONTZERTUA

Urriak 5, larunbata
Lekunberriko kiroldogian



ZUZEN ETA JATOR

Abuztuan ITXITA ala ITXIRIK?

Bi formak zuzenak dira, *abuztuan itxita* eta *abuztuan itxirik*, baita irekita/irekirik, ikusita/ikusirik edo *nekatuta/nekatuturik* ere.

Euskaltzaindiak honako gomendio hauek ematen ditu:

- ▶ EGON eta EDUKI aditzekin *-ta/-ik* atzizkiak edo *-a(k)* artikulua erabiltzea: *nekatuta/nekatuturik/nekatua(k) nago/gaude; itxita/itxirik/itxia(k) dago/daude; ikusita/ikusirik/ikusia(k) daukat/dauzkat...* ***Nekatutak gaude, *ikusitak dauzkat** eta gisako formak okerrak dira, adberbioetan ez baita forma plurala jartzen.
- ▶ IZAN eta UKAN aditzekin, berriz, *-a(k)* artikulua erabiltzea: *nekatua naiz, ikusia naiz/ikusiak gara/*

ikusia dut... ***Film hori ikusita dut** edo ***nekatuta naiz** formak okerrak dira, beraz (>*nekatua naiz/nekatuta nago, Film hori ikusia dut/ikusita daukat*).

Hori horrela, dendetan-eta sarrerako atean zintzilikatzen diren karteletan, esate baterako, *itxia/itxita*, bi moldeak dira zuzenak, nahiz eta ohikoena *itxita* jartzea den; izan ere, testuinguru horretan, *itxita dago* (NOLA) adierazkorragoa da *itxia da* (NOLAKOA) baino. *Itxirik dago* ere egokia da, noski.



MAILOPE

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:
Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:
Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:
Ainhoa Beraza, Aitor Irastorza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandezena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:
Oihane Balda, Juan Antonio Garaikoetxea, Leire Olano, Iñigo Gurra, Aner Ansorena, Oier Goñi.

· PUBLIZITATEA:
Labrit Multimedia - 948 210 103
- mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:
Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

AURKIBIDEA

02 ▶ ZUZEN ETA JATOR

04 ▶ KUXKUXEAN Zorion agurrak

07 ▶ MAITE DITUT MAITE
Betelu- Santa Barbara (Gorritiko Ermita)

10 ▶ ELKARRIZKETA
Lontxin Zubillaga
(Beteluko alkatea)

12 ▶ BATZARRE

14 ▶ ERREPORTAJEA
Elikadura osasuntsuagoa eta iraunkorragoa Lekunberriko eta Larraungo Eguneko Zentroan

18 ▶ KULTURA

24 ▶ KIROLA
Angel Ayestaran (Lekunberri)

31 ▶ AGENDA




Eider Azpiroz Arrizurieta
Abuztuaren 2an, 10 urte.
Zorionak, gure neskatxari!
Egun eder bat pasa
dezazula zure urtebetetze
egunean! Muxu asko
etxekoan partetik!




Loli Torres
Uztailaren 19an,
hirurogeita piko urte.
Zorionak, ama eta amona!
Egun ona pasa etxeko
guztion partez. Asko maite
zaitugu!

Oihan Eskudero
Abuztuaren 7an, 5 urte.
Zorionak, politte!
Segi horrela, beti bezala
irribarre batekin!
Egun ona pasa, asko
maite zaitugu!
Muxu potolo bat familia
guztiaren partetik!



Aimar Ruiz Zabala
Irailak 11n, 8 urte.
Zorionak, Aimartxo! Ongi
pasa zure eguna eta muxu
handi bat maite zaitugun
guztien partetik!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren
20a baino lehen.




Laia Ochotorena
Abuztuaren 13an, 3 urte!
Ai ama, dagoeneko eskola
handira, bihotza. Zorionak,
potxola! Segi beti bezain
txintxo, alai eta jator.
Izugarri maite zaitugu!
Muxu handi bat amatxo,
aitatxo eta Garairen partez!



Enara Iribarren Irastorza
Abuztuaren 14an, 5urte.
Zorionak, potola! Ongi pasa
zure eguna eta jarraitu gure
bizia alaitzen! Muxu erraldoi
bat etxeko guztion partez!

Unax Elordi Saralegi
Irailaren 14ean, 2 urte.
Zorionak, pottoko!
Ongi pasa zure egunean!
Muxu handi bat etxeko
guztien partez.



Nerea Sestorain Irailaren 20an, 8 urte.
Zorionak printzesa! Asko disfrutatu
zure eguna. Muxu handi bat etxekoan
partez!



AUTO- ISTRIPUA BETELUKO PRESAN

Abuztuaren 5ean, 23 urteko emakume bat Araxes ibaira erori eta Beteluko Presan murgildu zen. Emakumea Arribe eta Atalluko osasun zentrorera eraman zuten hasieran, eta, ondoren, Nafarroako Unibertsitate Ospitalera. Inguruko mediku taldea, oinarritzko bizi euskarriko anbulantzia bat, foruzainak eta Nafarroako Suhiltzaileen Uretako Erreskate Taldea bertaratu ziren. Foru Gobernutik jakinarazi zutenenez, emakumeak zauri arinak zituen eta istripu gunetik bere kabuz ateratzea lortu zuen, baina autoa berreskuratzeko, garabi bat behar izan zuten.



ETXEBIZITZEN EGOERA EZAGUTZEKO INKESTA

Cederna Garalur elkarteak inkesta bat diseinatu du gure lurraldean dagoen alokairuko etxebizitzaren eskaintzaren eta eskaeraren egoera ezagutzeko eta horren inguruan lan egiteko. Nafarroako Mendialdean biztanleria finkatzea da helburua. Etxea alokairuan hartzeko bila bazaude edo etxea saldu edo alokatu nahi baduzu, gure lurraldeetako gai garrantzitsuenetako bat lantzen lagundu dezakezu inkesta betetzen. Informazio gehiago lortu dezakezu: Web orrialdea: <https://labur.eus/HkW-Jo> eta QR kodea:



LARRAUNGO UDALETXE INGURUA HOBETZEKO LANAK

Gabari Gune Irekiaren ingurua hobetzeko lanak egiten hasi dira Larraungo udaletxeko langileak. Irisgarritasuna hobetzea eta Plazaolatik bide berdeak errepidea gurutzatzen duen puntuari lotura bat ematea da obraren helburua. Horretarako udaletxearen parean zebra bidea eta semaforoa jarri dituzte. 103.213,47€ da inbertsioa eta Nafar Gobernuaren Tokiko Inbertsio Planak finantzatu du.

► Oihane Balda (Lekunberri)



*Iraila iritsi da,
ta uda bukatzen.
Go herritako pestak
dira igaroten.
Eskola garaia ere
pixkanaka sartzen
errutinan sartuaz
ez gara aspertzen.*

*Udazken eta neguan
egueldi tristea
etxetik ateratzeko
gorputzak nekea.
Gertukoaren beroa
guretzat zortea
hor sentitzen baita bat
persona askea.*

Doinua: En la fabrika. Hurrengoa: Leire Intxaurren (Gaintza, Araitz)

Betelu®
Euskal Herriko Ura
%100 PET birziklatua
Ur Mineral Naturala
www.betelu.com

BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoko.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK
Granja Martenea GINTZA Nafarra
Ida. 849 872 057 • faxa: 849 511 057
malloak.com • info@malloak.com
IDIAZABAL

EZBEHARRA.

Laurogeiko hamarkadaren bukaera aldean, Nafarroako Parlamentuak, azkenean, foru lege bat onartu zuen, arazuko kanpoko funtzionala zuten pertsonen bizimodua hobetzeko eta errazteko asmoarekin, hau da, elbarri, ezindu handi, itsu, mutu, gorren eta abarren kolektiboetan sartzen ziren pertsona haien guztien bizitza, arindu eta gozarazteko asmoz. Baina lege hark, lege guztiek bezala, bazeukan bere araudia, artikulua guztiak garatu eta erregulatzeko, eta, jakina, legearen barruan, halaber, bazegoen departamentuarterako jarraipen-batzorde bat ere, haren segimendua egiteko eta kontrolatzeko. Bueno, ba, zer gertatuko, eta Nafarroako Gutxitu Fisikoen Elkarte-Koordinakundean neroni aukeratu nindutela!, batzordeko bileretara joateko, Koordinakundeko izenean, hots, beraiek ordezkatzeko.

Aipatutako legearen arabera, jarraipen-batzorde hark, gutxienez bi bilera egin behar zituen urtean zehar, oztopo arkitektoniko eta sentsozialen kentzearen martxa, hobeki kontrolatu eta kudeatzeko, baina, errealitatean ez zen horrelakorik gertatzen, baizik eta, batzuetan, bilera bat baino ez baitzen egiten egiten, eta, beste batzuetan, ezta bakar bat ere. Horrexegatik, hain zuzen ere, bilerak geneuzkan aldiro-aldiro, nik, batzorde buruari, presaka aritzea eskatzen eta erregutzen nion, mota guztietako oztopoak, ahalik eta azkarrena kendu ahal izateko, baina argi eta garbi dago ez nuela batera arrakastarik lortzen, zeren eta, batzorde buruak, behin baino gehiagotan, zera esaten baitzidan:

–Lasai, Xanti, lasai!, badakik hobe dela gauzak poliki eta patxadaz egitea, baina ongi, eta, ez, laster eta gaizki! Horrexegatik, hain justu ere, berriz eskatzen diat lasaitasuna. Nik uste diat, zuek kexati eta presati hutsak zaretela.

–Kexati eta presati hutsak ez, baizik eta zeharo errealistak. Guk ere egunero bizi behar diagu, e!, eta, oztopo arkitektonikoak hortxe zaudek, bazter guztietan, horrexegatik zeukaagu hainbeste presa, hil edo bizikoa delako guretzat oztopoak kentzea; herorrek ere ikusiko duk noizbait tokatzen baldin

bazaik! Eta, argi eta garbi geldi dadila, nik ez diadala horrelakorik inola ere opa!– nik, minduta.

Eta gauzak zer diren, handik hilabete batzuetara, batzorde buruak, igande bateko ilunabarrean, Iruñera itzultzen ari zenean, egundoko auto istripua izan, eta, ospitalera eraman behar izan zuten oso larri, hanketako hezur asko hautsita. Luzaroan egon behar izan zuten erietxean, bere onera etorri nahian. Gauzak hala zeudela, egun batean, gizalegezko bisita bat egitea deliberatu nuen. Bere gelara sartu, eta, hantxe, hizketan ari ginela, halako batean, zera bota zidan ziplo, damutu samarturik, etzanda zegoen ohatzetik:

–Ai, Xanti, Xanti!, ez dakik ongi zenbat aldiz oroitu naizen hitaz aste hauetan guztietan, hemen ospitalean! Eta nola aldatzen den ikuspuntua, egoera fisikoaren arabera! Orain, gurpil aulkian, kalera ateratzen nauten guztietan, oztopo arkitektonikoak baino ez ditiat ikusten, lehen ez bezala!; eta, baita gogotik pairatu ere! Dena duk espaloiak, koskak, zuloak, eskaierak eta abar; ze nazka! Bai aspergarria! Orain, bai, orain ederki asko ohartzten nauk zenbat arkitektura eragozpen dauden leku guztietan! Bai, behin betiko, eta, lehenbailehen kendu eta ezabatu beharra zagok oztopo guztiak, Xanti!

Handik aurrera, ez dut oso ongi gogoratzen, erabat osatu zen ala ez gizon hura; gurpil aulkian jarraitu behar izan ote zuen ibiltzen ala ez, baina, argi eta garbi dagoena da, bere mentalitate aldaketa.

Hertzainak musika taldeak kantatzen zuen bezala: “Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!”.

Xanti Begiristain Madoz
Auritz. 2021-05-10

Hurrengoa:

Mattie Garaikoetxea (Betelu)



Leire Olano (Betelu)

maite ditut maite gure bazterrak

Betelu- Santa Barbara (Gorritiko Ermita)

Ibilbidea: joan-etorria
Distantzia: 11,6km
Desnibela: 620 m
Zailtasuna: erraza



Zergatik aukeratu dut?

Ibilbide hau nire bizitzan zehar agian gehien egin dudana delako aukeratu dut. Hau, zertxobait aldapatsua da eta hori gustoko dut. Gainera iluntzealdean egiteko ibilbide izugarria iruditzen zait, izan ere gora iristean ikusten den panoramika paregabea da, eta ilunabar argitsu bat badago, ederra da bertan egotea.

Bidea:

- 1 Betelutik atera eta Arriberantz abiatuko gara errepide bazterretik. Arribeko plazara iristean elizarantz joko dugu, eta eliza ezkerretara utziz pistatik zuzen jarraituko dugu. Herritik atera eta pista berari jarraituko diogu gorantz.
- 2 Aldapan gora goazela, eskubitara mendiko pista bat ikusi eta honi jarraituko diogu. Bertan jarraituz, egurrez eginiko eta ondoan marka zuri eta laranja bat duen pasabide bat zeharkatuko dugu.
- 3 Aurrera segi eta pisten bidegurutzet batekin egingo dugu topo. Eskubikoa hartuko dugu, aurrera jarraituz. Pistari segiz, pagadi batean sartuko gara eta azken zig-zagak eginez Mailloak ikuspuntu panoramiko batetik ikusiko ditugu.
- 4 Peraan dugun burdin hesia gurutzatu eta ezkererantz joko dugu, hesiaren ondotik bide errazena hartuz Santa Barbara ermitara iritsi arte. Azkenik, etorri garen leku beretik jeitsiko gara behera.

CONSTRUCCIONES
ERAKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683
Lekunberri

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Construcciones
Gañarbe

Oztegin kalea 2, Lekunberri 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com 636 827 846

“Proiektu asko egitea lortu dugu, baina beti diru-sarreraren bermeekin”

la urtebete da Beteluko Udaletik azken berriak jaso genituela eta ikasturte berriarekin batera, hilabete hauetan aurrera eramandako proiektuen errepasoa egin dugu Lontxin Zubillaga alkatearekin.



Beteluko presa. Argazkia: Arantxa Mikeo

8

Proiektu horietako hainbatez gozatuko dute besteak beste Araxes Ikastetxeko ikasleek.

Bai. Alde batetik eskolan zegoen parkea zaharkituta zegoen eta berria jarri dugu. Eta bestetik frontoiko zoruari ere tratamendua eman eta margotu egin da. Bi lan horiek Hezkuntza Departamentutik zuzenean jaso dugun 30.000 euroko diru-laguntzarekin finantzatu dira. Eta hemendik Ruben Goñiri eskerrak eman beharrean gaude bere bitartekaritza ezinbestekoa izan zelako 36.000 euroko gastu osoari aurre egiteko.

Ez da ordea eskolako frontoian egin den lan bakarra, ezta?

Ez. Frontoia nolabait egoera alegalean zegoen. Jada urte batzuk badira eraiki zenetik eta larrialdietarako irteerak egungo araudira egokitu beharrean zeuden. Hori dela eta, sarrerako ateari zabalera eta altuera handiagoa eman zaio eta horretarako beheko harmailaren zati bat moztu

“Eskolaren sarrerako aldapatxoaren azpiko espazioa ez zen behar bezala aprobetxatzen”

behar izan dugu. Gainera, biltegitxo bat ere egin dugu frontoiko sarreran. Eskolaren sarrerako aldapatxoaren azpiko espazioa ez zen behar bezala aprobetxatzen eta pixka bat egokitu eta gero, erosi berri ditugun aulkiak, mahaiak eta bestelako materiala gordetzeko erabiliko da.

Beraz, aulkiak eta mahaiak ere erosi dituzue?

Bai. Lagun Arteako gazteekin eta ihauterietako antolakuntzako kideekin akordio bat sinatu genuen diru-laguntza bat eskuratu eta 350 lagunentzako aulkiak eta mahaiak erosteko herrian egiten diren herri-bazkari eta ekimenetan erabiltzeko. Eta 25 hesi ere erosi ditugu. Orain arte, gehienetan Lizartzatik ekarri

ohi ziren. Denon artean hartutako erabakia izan da eta probetxua aterako zaiola uste dugu. Gainera arautegi bat ere adostu da material hori alokairuan eskaintzeko. Bestalde, udal azpiegiturei dagokionean, Indianoetxeko barruko patioan ura sartzen zen. Iragazketa arazo hori konpontzeko obra txiki bat egin da eta lan horiek aprobetxatuz, behean zegoen palmeratxoa aldatu dugu.

Herriko beste espazio bereizgarrietako bat presa da.

Presako erabiltzaileentzako araudi berria egin dugu eta panel informatibo berri batzuk jarri ditugu presan. Bertan azaltzen dira arau nagusienak eta QR baten bitartez erabiltzaileek osotasunean ezagutu ditzakete bete beharrekoak.

Zeintzuk izaten dira presan sortzen diren arazoak?

Gatazkatsuenak txakurrekin eta aparkalekuarekin lotutakoak izaten dira.

Altsasuko Foruzaingoaren egoitzako nagusiarekin bilera izan genuen eta orain egunean bitan egiten duten bisitetan besteak beste presako arauak betearazteko laguntza jasoko dugu.

Presaren ingurune horrekin lotuta hainbat proiektu dituzue aurreikusita.

Bai. Beteluko Ura enpresarekin akordio batera iritsi gara. Berea zen burdinolaren, kanalaren eta Kabi-Alairen parean dagoen zuhaitziaren jabetza. Herriarentzako dugun ametsetakoa bat Errazkingo bidegurutzetik datorren ur kanala eta Goikolako burdinolaraino datorren xenda berreskuratzea da eta bidean gaudela dirudi. Itsas gaztainondoak dauden errekaren ertzeko zuhaitzia erortzeko arriskuan zegoen erreka azpitik jaten ari baitzitzaion. Hori konpontzeko gastuak enpresak bere gain hartu beharrean lur horiek, kanala eta burdinolaren lurra jabetzan eman digu. Dama Iturri eta iturriak atzean duen etxolaren jabegoa euren izaten jarraituko du, baina Udalak erabiltzeko adostasun batera iritsi gara. Etxola hori Udalak ingurune horren mantenturako erabiltzen den materiala gordetzeko erabiltzea da gure asmoa.

Proiektu handiak dira horiek...

Akordio honen aurrean, momentuz gure lehentasuna arriskuan egon daitekeen zuhaitzia egonkortzeko lanak egitea da. Eta horretarako diru-laguntzak aztertu beharko ditugu. Eta ea etorkizunean aukera dugun kanalaren eta burdinolaren ertzeko errege bide hori biziberritzeko.

“Proiektu ederra da, baina ez da erraza izan bideratzea”

Ondoa dagoen Urberoarekin beste amets bat ere baduzue.

Bai. Urberoa Beteluko Udalak herentzian jasotako etxea da, herriko garbitokiaren ondoan dago eta bertan uraren interpretazio zentru bat sortzeko aurreproiektu bat landu dugu eta Turismoaren Sailean aurkeztu dugu. Interpretazio zentruarekin batera bi komun egin nahiko genituzke espa-

zio horretan eta kanpoan garbitokitik datorren urarekin iturri bat eta plaza-txo polit bat eraiki. Proiektu ederra da, baina ez da erraza izan bideratzea.

Legegintzaldiaren hasieran mar txan jarri zenituzten auzolanei ere jarraipena eman diozue...

Bai. 40 urte inguru eta gero, auzolanak berreskuratu ditugu eta egia esan, orain arte egindakoak arrakastatsua izan dira. Azkeneko auzolana herriko festen aurretik egin zen. 15-20 boluntariok parte hartu zuten. Bankuak eta kaleko hainbat egitura margotu eta herriaren sarrera, zaharren egoitzaren



Parkearen berrikuntza. Argazkia: Arantxa Mikeo



Frontoiko zoruari tratamendua ematen. Argazkia: Arantxa Mikeo

9

IORTIA CLÍNICA DENTAL · HORTZ KLINIKAK

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 - 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologia
Laser-depilazioa eta
depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpainetan
Mikroblading bekainetan



Garbitokira igotzeko bidea



Suteen aurkako neurria

ingurua eta beste zenbait espazio txukundu genituen eta amaieran ekimena borobiltzeko lunch baten bueltan elkartu ginen. Erretiratuak nahiz gazteak herriarentzako elkarrekin lanean ikustea ederra da! Irailean zehar beste bat egitea da asmoa.

Eta auzolan horiek bezainbesteko arrakasta izan zuten ere suteen kontrako ikastaroek, ezta?

Hala da. Basoetako Suteen arriskuaren aurreko Udal Jarduera Plana egin dugu eta horrekin lotutako formakuntza saio batzuk eskaini ziren. Bi asteburutan banatuta 30 orduko ikastaroa izan zen eta hamasei herriarrek parte hartu zuten.

Erretiratuak aipatu dituzu... Herriko jubilatuei zuzendutako jarduerekin ere ari zarete.

Hori ere hasieratik gure lan-ildoan aranean zegoen eta pixkanaka ekintzak egiten ari dira. Hiru edo lau zinema saio eskaini dira. Udan eten egin zen baina ikasturte berriarekin batera horrekin jarraitzea da asmoa. Eta Indianoetxeko beheko solairuan duten egoitzan, Kirol Mankomunitatearekin elkarlanean, mantenu fisikorako saioak eskaintzen dira astean bitan. Hamalau lagun elkartzen dira eta harrera ona izaten ari da.

Adinduekin egunero dabiltzanak Amavirreko langileak dira. Horiek ere euren lan-baldintzen aldeko borrokan jarraitzen dute.

Amavirreko langileei ahal dugun laguntza eta babesa eskaintzen ari gara. Nafarroako lan hitzarmena lortzea da helburua. Hemen oso lan-baldintza eskaseta lan egiten

“Hondakinen edukiontzia herriaren erditik kentzeko beharra ikusten genuen”

“Aralar Elkartearen gertatzen ari dena kezagarria da”

dute eta langile berriak bilatzea ere kosta egiten da. Orain dela zenbait hilabete, Udalak berak deituta, udal ordezkariok eta Amavirreko langileen ordezkari sindikalak Ines Francesekin (Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzaile) batzar batean bildu ginen egoera aztertzen. Berak gatazkaren muina ulertzen du eta langileen errealitatearekiko sentsibilitatea adierazi zuen, baina momentuz ez da adostasunik lortu Nafarroako Gobernuarekin. Momentu honetan, Beteluko Udala prest dago Amavirreko langileei gure esku dagoen guztian laguntzeko eta horretan jarraituko dugu hitzarmena lortu arte, oraingo baldintzak ez direlako batere duinak.

Polemika piztu ohi dute hondakinekin lotutakoek, baina egin berri duzuen proiektua herritarren gustukoa izan dela dirudi, ezta?

Hondakinen edukiontzia herriaren erditik kentzeko beharra ikusten genuen. Autobus markesinaren atzeko espazioa egokiagoa iruditzen zitzaigun eta Antton Arrizubietarekin bere lurretan dagoen barruti zati bat erabiltzeko akordio batera iritsi ginen. Bertan 20.000 euroko inbertsioa egin dugu espazioa egokitzeko: lurzorua

jarri, paretak, atea, ureztatze-ahoa tarteka garbaldi bat emateko eta bertan sartu dira kanpoan zeuden edukiontzi guztiak, baita olioarena eta Emausen kontainerra ere. Txukun eta garbiago gelditu dela uste dugu eta herritarren aldetik jaso ditugun iritziak positiboak izan dira.

Herriaren erditik pasatzen den errepide horretan segurtasuna hobetzeko hasi zenuten lanketa zertan da?

Ostatuaren parean gainbide bat jarri nahi genuen, herritik pasatzen den trafikoaren abiadura moteltzeko eta oinezkoen segurtasuna hobetzeko, baina baimenik ematen ez digutela ikusi eta gero, herriko zeharbide guztiaren memoria bat diseinatzen ari gara arkitektoarekin zeharabideak eta bestelako elementuak jartzeko.

Eta etxebizitzaren arloan zein aurrerapauso eman dituzue?

Ostatuaren gainean sei etxebizitza eta igogailua egiteko egitasmoarekin lanean gabilta. Diru-laguntzak eskuratzeko izapideak egiten ari gara. Alokairuan eskaintzeko sei apartamentu egitea aurreikusten dugu. Behin eraikita, alokatzeko baldintzak zehaztuko dira, baina asmoa da bertako herritarrei eta batez ere gazteei erraztasunak ematea. Badira halako proiektuetarako diru-laguntzak, baina zain gaude. Eta berdina gertatzen zaigu frontoiaren gainean jarrai nahi ditugun eguzki-plaken proiektuarekin. Etxebizitzarekin lotuta, Urumea etxean ere badugu beste eraikin bat Udalarena dena eta etorkizunean horri eustea ere gustatuko litzaiguke, baina eraikuntzaren sektorea inoiz



Suaren kontrako ikastaroa. Argazkia: Arantxa Mikeo

baino garestiago dago gaur egun eta ez da erraza, baina herritarrei bertan bizitzeko aukera eman nahi diegu.

Herriguneari ez ezik, mendialdean ere lanean ari zarete.

Bai. Batetik, Aiztitzon eta San Donaton garbiketa lanak egiteko eskaria egin genuen baina ez ziguten eman eta berriro eskatu dugu. Eta bestetik, Aiztitzon bertan guztiz abandonatuta dagoen iturria berreskuratzeko diru-laguntza eskatu genuen Landa garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuan. Dagoeneko onartu digute, baina idatzizko baieztapenaren zain gaude. Eta eskatutako beste diru-laguntza bat Txorroako ubidea-ekin lotutakoa da. Txorroatik hilerri-ira doan bidea erortzeko arriskuan da eta pareta bat eraiki beharko da.

Eta zer gertatu da Aralar Elkartearekin lotutako auziarekin?

Aralar Elkartearen gertatzen ari dena kezagarria da eta ez da erraza lau lerrotan azaltzea, baina pozik gaude

“Proiektu gehienak diru-laguntzei esker egin ditugu”

Nafarroako Administrazio Auzitegiak arrazoi eman digula ikusita. Elkartearen estatutuetan jasotzen den moduan Lakuntzako alkateak behar du izan elkarteko lehendakari, eta ezin du kargu hori beste inoren eskutan uzteko lagapenik egin. Lakuntzako Udalaren barruan, Elkarteko gainerrako kideen babesik gabe alkateak zinegotzi bati egin zion lagapena. Auzitegian salatu genuen eta orain gaizki egindakoak zuzendu beharko dira. Dena den elkartearen kide diren herriek historikoki izan duten ahotsa galtzen joan dira azken urtetan eta gardentasun eta parekidetasun falta handiz kudeatu dira hainbat gai. Zentzu horretan, gainerako udal eta kontzejuekin batera egoera birbideratzeko lanean jarraitu nahiko genuke.

Beteluarrek lanean zabilatzatenik ez dizuete behintzat ukatuko...

Askok galdetzen digute ea nondik ateratzen ari garen horrenbeste gauza egiteko dirua. Proiektu gehienak diru-laguntzei esker egin ditugu. Eta argitu beharra dago kaxoian sartuta geldi zeuden zenbait diru-laguntza kudeatu ditugula. Besteak beste, 57.000 euro jaso ditugu Madrildik. Joanes Aleman idazkariak izugarrizko lana egin zuen eskaria egiteko beharrezko ziren izapide guztiak egiten eta ordu asko sartu genituen, baina merezi izan du. Eta bestetik, sei urte zeramatzan Udalak Hezkuntza Departamentuari Araxes ikastetxeko defizita kobratzeko eskaria egin gabe. Hori ere kudeatu dugu eta 48.000 euro jaso ditugu. Lulota eta Kastabalen haritz amerikarra aterako da. Ez zegoen aurreikusita baina 1.100 metro kubiko atera behar ditugu enkantean. Beraz, proiektu asko egitea lortu dugu, baina beti diru-sarreraren bermeekin.

Mailoperen bitartez, aprobeztatu nahiko genuke udal langileak diren Mirentxu Eskamendi eta Joanes Alemani eskerrak emateko, lan ikaragarria egiten ari direlako, baita mantenu lanetan laguntza eskaintzen diguten herritar guztiei eta Lagun Arteko gazteei ere, festa ikaragarriak antolatu dituztelako urtero. Eta herritar guztiei orokorrean animatu horrela jarraitzea, bakoitzak beretik emanez, auzolanean herriaren alde aurrera egiteko.

BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

German Lasarte
ARBEZONDO HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arbe-Atailla

urrutia Enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI



IBARBERRI ESKOLA ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA


Ibarberri Eskola Publikoa eta Haur Eskola berritzeko proiektu esanguratsu bat abian jarri da, 1.746.900 euroko inbertsioarekin. Ekimen honek 1.534.438 euroko dirulaguntza garrantzitsua jaso du, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak (IDEA) emandakoa. Hobekuntza honek, eraikinaren isolamendua termikoa hobetuko du. Luminarien ordez, LED argiak jarriko dituzte eta erradiadoreen ordez, aerotermino bero-ponpa bat ezarriko dute. Gainera, autokontsumorako plaka fotovoltaikoak jarriko dira, ondorioz, kiroldegiari eta igerilekuari ere mesede eginez. Proiektu honi esker, urtean 65.000 euro baino gehiago aurreztuko dira, eta energia-eskaria %50 murriztuko da. Gainera, Udalak 137.000 euroko dirulaguntza eskatu dio Hezkuntza Sailari, ikastetxeko sarreran aterpe bat eraikitzeko, bigarren solairuko lurzorua konpontzeko eta ebakuzio arripala berritzeko.

12



NAFARROAKO AHOULKULARI KOMUNIKAZIO SARIA IRABAZI DU ANER ANSORENAK WASHINGTON DC-N

Aner Ansorena, Nafarroako komunikazio aholkularia eta Hauda Komunikazioko zuzendaria, Napolitan ospetsuetan saritua izan da. Hau komunikazio politikoaren sari garrantzitsua da aholkularitza politiko eta estrategikoaren eremuan. Ekitaldia The Washington Academy of Political Arts & Sciences elkarteak antolatu du. Ansorenaren ikuspegi berritzailea eta bere dedikazioa funtsezkoak izan dira aintzatespen honetarako. Gainera, Hauda Komunikazioa beste bi kategoriatan izendatu dute: "Sinadura errebelazioa" eta "Blog politikorik onena".



UGATZ KUME BAT LEHEN ALDIZ ARALARREN

Aralarko zeruan, ugatz kume bat lehen aldiz erregistratu dute hegan. Bertan jaio da, izan ere, duela bost urte mendilerroan finkatu zen ugatz bikote baten kumea da. Nafarroako Ingurumen Sailak azaldu duenez, urrats garrantzitsua da espeziea inguruan hedatzeko, eta, era horretara, Pirinioetan eta Kantauriar mendikatean bizi diren ugatz urrien arteko zubi lanak egiteko. Ugatza galzorian dagoen putre espezie bat da. Nafarroan, talde batzuk errotu dira, eta espeziearen populazioa hedatzen ari da pixkanaka.



URTANTA KONTZERTUA AZKUGAINAN

Urmuga proiektuak Euskal Herriko musika eta mendiak lotzen ditu. Paisaiari, kulturari eta euskarari balioa eman eta aldi berean, herritarren eta ingurune naturalaren arteko lotura sustatzen du. Uztailaren 28an ekimen honek Urtanta kontzertua antolatu zuen Uztegioko Azkugainan. Bertaratu ziren ehundaka lagunak, Eñaut Elorrieta, Janus Lester, Anje Duhalde, Olaia Intziarte, Xabier Leturia eta Et Incarnatus Orkestra ikusteko aukera izan zuten. Ekitaldia baino lehen egindako prestakuntzak ezinbestekoa izan ziren horrelako leku eder, natural eta basatia egokitze. Mailoen atzetik eguzki izpiek zerua zeharkatu zuten egun zoragarri bati ongi etorria emanez. 36 gradu egin arren, abestiek berotasuna ahaztuarazi zuela diote bertaratu ziren ikusleek.

13

GAINTZAKO KABLE EGUNEAN BERTAKO BEHATOKIA INAUGURATUKO DA

Irailaren 14an, goizez ospatuko da Malloko Kablearen Eguna. Gaintzan izango da, Kablea jaso eta garai batean Malloko nola lan egiten zen ikusteko aukera izanen da. Ondoren, herrian, zerbait jan eta edateko aukera izanen da. Bertako produktuak erosteko ere. Gainera, honen harira, egun berean Malloko Kablearen Behatokia inauguratuko da Gaintzan bertan. «Malloko Kablearen Behatokia» etxola txiki bat da Malloetara bista zoragarria duena Baratzailgo igoera bidean. Bertan panel informatibo batzuk daude: Belar kableaz gain, artzantza, bailarako etnografia, geologia, flora eta fauna aipatzen dira. Panelak osatzeko 5 bideo prestatu ditu Heda Komunikazioak udalarekin eta zenbait herritarrekin batera. Informazio gehiago nahi baduzu sar zaitetz hurrengo web orrialdean: <https://labur.eus/msNqn>



ENE KANTAK-EN KONTZERTUA LEKUNBERRIKO KIROLDEGIAN

Ene Kantak-en kontzertua, urriaren 5ean izango da, Lekunberriko kiroldegian. Mailoeko aldirik aurrera egin dezan aurten kultur elkarteak antolatzen duen bigarren ekitaldia da, Araitx, Betelu, Larraun eta Lekunberriko udalen laguntzari esker. Ekainaren 9an Betelun kontzertua antolatu zen, Jaione Olazabal eta bere familiarekin eta herritarrek oso ongi erantzun zuten. Elkarteak horrelako ekitaldiak antolatzen ditu, urtero, aldirik hileroko argitaratzeko beharrezkoa den diru gastuan laguntzeko eta eskualdeko herritarrei aldirik eskaintako laguntza eskertzeko. Horrelako ekitaldiek, ordea, ez diote aldirik zurtasun ekonomikorik eskaintzen, ezinbestekoa da guztion ekarpena, horregatik, jendea bazkide egitera animatu nahi du Mailoeko Kultur Elkarteak, aldirik hileroko etxean jasotzen jarrai dezagun. Sarrerak salgai jarriko dira datozen egunotan, betiko lekuetan.



●● Mikel Uharte, Arkaitz Goikoetxea, Amaiur Unzueta, Silvia Otermin, Mikel Zulaika eta Itziar Egidazu

Elikadura osasuntsuagoa eta iraunkorragoa Lekunberriko eta Larraungo Eguneko Zentroan

Lekunberriko eta Larraungo Eguneko Zentroak, bi herrietako udalekin elkarlanean, protokolo berritzaile bat ezarri du bertako ekoizleei produktuak erosteko, bertako ekonomia indartu eta elikadura-ohitura osasuntsu eta iraunkorrak sustatzeko helburuarekin. Proiektu hau, Cederna Garalurrek koordinatu du Mirua kooperatibaren laguntzarekin, 2024ko apirila eta ekaina bitartean. Nafarroako Gobernuako Administrazio Departamentuak finantzatu du eta Nafarroako Tokiko Ekintza Taldeek parte hartzen dute RuralNAV lankidetzaren bitartez.



Eguneko Zentroko langileak, erabiltzaileak, bertako jakien ekoizleak eta Larraungo eta Lekunberriko alkateak, proiektu aurkezpenean.

14

Lekunberriko eta Larraungo Eguneko Zentroa barne hartzen duen ekinbide honen helburu nagusia da bertako ekoizleen produktuak eguneroko elikaduran txertatzea. Zentroak hainbat hilabete daramatza proiektu pilotu bat lantzen, eta baliteke datozen hilabete eta urteetan Nafarroako beste eskualde batzuetara zabaltzea. Proiektua Eguneko Zentroko elikagaien eskaintzarekin bideratzean datza, Mendialdea eta Sakanako ekoizleen sasoiko produktu freskoen erosketa lehenetsiz,

“Proiektu honek gure eskualdean lehen sektorea eta elikadura subiranotasuna sustatzeko azken urteotan egin dugun ahalegina indartzen du. Beste arlo batzuetan errepikatu daitekeen eredu iraunkorra sortzeko benetako aukera ikusten ari gara”

Mikel Uharte

eta, horrela, tokiko ekonomia indartuz. Gainera, egitasmoak zentroko erabiltzaileen zaintza hobetzea du helburu, menuak landuz, horiek osasuntsuagoak izan daitezten. Egitasmo hau, Eguneko Zentroaren, Lekunberri eta Larraungo udalen, Cederna Garalurren eta elikadura sistemen trantsizioan espezializatuako Mirua kooperatibaren lankidetzaren emaitza izan da. Mikel Uharte Larraungo alkateak azpimarratu duenez, proiektu honek, “bertako ekonomia, lehen sektorea eta elikadura subiranotasuna indartzeko egiten ari

“Proiektu honek aukera ematen digu eskala txikiko proba batekin hasteko, eta horrek aldaketen kontrol progresiboa errazten du, eta emaitzak ikusteko aukera eskaintzen digu hedatu aurretik”

Arkaitz Goikoetxea

garen lanaz gain, ibarrean bizitzeko aukerak errazten ditu, eta despopulazioa galarazten”.

Proiektua moldagarria izateko asmoz diseinatu da eta hori funtsezkoa da eredu hainbat testuinguru eta beharretara egokitu ahal izateko. Uhartek eta Goikoetxeak eskertu dute Eguneko Zentroko langileek eta erabiltzaileek proiektu hau martxan jartzeko erakutsi duten prestutasuna eta lankidetzarako borondatea: “Ezinbesteko osagaia da proiektua martxan jarri ahal izateko”. Bestalde, Cederna Garalurreko Amaiur Unzueta teknikariak gaineratu duenez, “Eguneko Zentroko jantokia txikia da eta oso egokia da Nafarroako beste haranetara esportatu daitekeen horrelako proiektu bat abian jartzeko, tokiko ohituren eta merkataritza-zirkuituen eraldaketa sustatzeko, eta bertako garapena eta garapen jasangarria bultzatzeko”.

Proiektuaren garapena

Uztailaren lehen hamabostaldian informazio-hitzaldi bat egin zen Eguneko Zentroko erabiltzaileekin. Bertan proiektua aurkeztu zen eta uztailaren erdialdetik aurrera, menuen aldaketa ezarri da Eguneko Zentroan. Proiektuak tokiko ekoizleen sare eraginkor bat sortzeari dagokionez ere aurre egin behar die erronkei. “Erronka nagusietako bat, hasieran, beharrezko elikagaiak eskatutako kopuruetan emateko prest zeuden ekoizleak aurkitzea izan zen. Proiektu honek erakusten du eskaria bada-



Arkaitz Goikoetxea proiektuaren aurkezpen eguneko une batean.

goela eta posible dela tokiko hornitzaileen sare bat ezartzea”, adierazi du Arkaitzek.

Talde-lana funtsezkoa izan da oztopo horiek gainditzeko, Lezaetako ogia ekoizten duen Itziar Egidazu ekoizleak adierazi duenez: “Cederna Garalurreko Amaiur teknikaria nirekin jarri zen harremanetan, eta proiektu honetan parte hartzea aukera ona iruditu zitzaidan. Nahiz eta ez dizkidan produktu kopuru handiak eskatu, hunkituta sentitzen naiz nire lana onuragarria delako tokiko komunitatearentzat”. Proiektu pilotuak hiru hilabeteko iraupena izango du, eta tokiko eli-

“Bertako ekonomia, lehen sektorea eta elikadura subiranotasuna indartzeko egiten ari garen lanaz gain, ibarrean bizitzeko aukerak erraztu eta despopulazioa galarazten du”

Mikel Uharte

kagaien horniduraren bideragarritasuna eta onurak ebaluatzea ahalbidetuko du. Aldi horretan, erosketa bolumenak eta sektorearen baldintzak aztertuko dira, beharrezko egokitzapenak egiteko eta proiektuaren iraunkortasuna ziurtatzeko. Gainera, aldi behin bilerak egingo dira inplikaturako alderdi guztiekin, emaitzak ebaluatzeko eta hurrengo urratsak planifikatzeko.

Menu berriak eta prestakuntza

Mirua kooperatibak Eguneko Zentroko sukaldariarekin lan egin du, Eguneko Zentroko mahaikideen artean harrera onena duten platerak prestatzeko, menu osasungarri eta iraunkorretarako trantsizioa ahalik eta atsegina izan dadin. Gainera, denboraldi bakoitzerako egokitutako menu berrietan lan egin dute, besteak beste, “bero-menua”, “menu-hotza” eta hamaiketako menua. Mikel Zulaikak sukaldaritza ikasi zuen, Sevillan. 1992. urtean amaitu zuen, eta geroztik, ogibidez sukaldaria izan da. Haren ustez, menu osasungarria eta atsegina uztartzea da gakoa. “Atona-amonek janariaz gozatzea da garrantzitsua; horregatik, menu osasungarri baten eta

15

hainbeste gustatzen zaizkien jakien nahasketa egin dugu”, adierazi du. Zulaikak bertako produktu freskoak erabiltzearen garrantzia azpimarratu du, eta janariaren kalitatean berehala antzematen dela ziurtatu du. “Elikagai ekologikoak eta freskoak aukeratzen ditugu; jakiak jasotzen ditudanean, azkar antzematen dut bildu berriak direla. Hori bereziki garrantzitsua da guretzat, eguneko janari freskoarekin lan egiten dugulako”, azaldu du. Gainera, adierazi duenez, “udalarekin proiektu berri honetan hasi garenetik, tokiko produktuak lortzeko ahalegin handia egin dugu”.

Eraldatze prozesua

Proiektuak duen eragina nabarmena da. Menuak egokitu egin dira tokiko produktu fresko gehiago kontsumitzeko. Mikel Uhartek adierazi duenez, “tokiko produktuen eta merkataritzako horniduren arteko oreka bilatu dugu. Ez gaude hemen dena iraultzeko, baizik eta bertako ekoizleei zein saltokiei mesede egingo dien oreka bat aurkitzeko”.

Gainera, Silvia Otermin Lekunberriko zentroko arduradunak erabiltzaileen aldaketen onarpenari buruz hitz egin du: “Dietaren kalitatea nabarmen hobetu da. Erabiltzaileek oso ongi onartu dituzte aldaketak, eta elikagaien zaporean eta freskotasunean aldea nabaritu dute. Trantsizioa espero genuena baino errazagoa izan da”. Eguneko Zentroko erabiltzaileentzat aldaketa prozesua ez da erraza izan, baina Zulaika funtsezko zutabea izan



Proiektua garatzeko egin zen bilera bat. Argazkia: Mirua kooperatiba

“Tokiko komunitateari zuzenean mesede egiten ikustea zirrargarria da”

“Proiektu honetan parte hartzeak nekazaritza praktika arduratsuak bultzatzen ditu, eta elikagai freskoak eskaintzen”

Itziar Egidazu

da hedapenean. “Egia da hasieran pixka bat zaila izan zela egokitzea, batez ere menuan barazki gehiago sartu genituelako, baina pixkanaka-pixkanaka ohitzen joan dira, eta orain pozik daude”.

Izan ere, aldaketa ez da osagaietan bakarrik gertatu, baita janaria prestatzeko moduan ere. “Errezeta berriak prestatzen ikasi dut, hala nola dilista hanburgesak edo garbantzu albondigak, plater bakoitzean beti maitasunari eta tradizioari eutsiz”, gehitu du Zulaikak.

Elikalimen nutrizio-aholkularitzak menuen aldaketa gainbegiratu du,

“Dietaren kalitatea hobetu egin da, eta erabiltzaileek ongi onartu dituzte aldaketak”

Silvia Otermin

janari osasungarria eta jasangarria bermatuz, betiere adineko erabiltzaileentzako nutrizio-gomendioak errespetatuz. Eta produktu freskoen kudeaketa hobetzeko, eguneko zentroan hotz-ganbera bat instalatzea aurrekusi da, bertako produktu gehiago biltegitzeko.

Gaur egun, eguneko zentroko jan-tokian hamazazpi mahaikide daude, eta menu berriez gozatzen dute astelehenetik ostiralera, bai gosarian, bai bazkarian.

Komunitatea eta ingurumena

Proiektuak kontsumitzaileei mesede egiteaz gain, ingurumenean ere eragin positiboa du. “Tokiko produktuen erabilerak urruneko eskualdeetatik elikagaiak garraiatzearekin lotutako karbono-aztarna murrizten du”, adierazi du Arkaitzek. Gainera, nekazaritza praktika jasangarriak sustatzea, natura ingurunea babesten laguntzen du.

Itziar Egidazuk zera gaineratu du: “Proiektu honetan parte hartzeak ekologikoak eta iraunkorrak diren produktuekin lan egiteko aukera ematen dit. Nekazaritza praktika ar-



duratsuak bultzatzeko, eta, aldi berean, komunitateari elikagai freskoak eskaintzeko modu bat da”.

Etorkizuna eta berrikuntza

Proiektuak aurrera egin ahala, egitasmoa zabaltzeko eta hobetzeko planak daude. “Gure helburua da eredu hori garatzen jarraitzea eta tokiko produktuak beste arlo batzuetan integratzeko modu berriak aztertzea”, ondorioztatu du Uhartek. Orain arteko esperientziak erakutsi du posible

dela elikadura-sistema iraunkorra-goa eta tokiko beharretara egokitua sortzea.

Proiektu honek, despopulazioa aztertzeaz gain, landa komunitatearen biziberritzea erakusten du. Egidazuk ondorioztatu duenez, “proiektu honek erakusten du, konpromiso eta lankidetzaz, etorkizun jasangarri-goa eta autonomoagoa sor dezakegula gure komunitateentzat. Espero dut inspirazio gisa balio izatea gauza bera egin nahi dutenentzat”.

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

rey del bacalao
Supermar

BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com.

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara

Erdi Aroko XXVIII. azoka Lekunberrin

Abuztuaren 4an Lekunberriko alde zaharreko kaleek iraganera egin zuten salto. Erdi Aroko XXVIII. azoka ospatu zen Plazaola Partzuego Turistikoaren eta Lekunberriko Udalaren antolakuntzari esker. Bertako eta artisau produktuak eskaintzen zituzten 65 postuz hornituriko azoka izan zen, gainera, Lorena Arangoa antzezleak zuzendutako ikuskizun paregabeak, herriko eraikin zaharren historia berpiztu zuen. Jardunaldian, musika, ikuskizunak, erraldoiak eta buruhandiak izan ziren.



Antzezleri ibiltariak.



Artisau postu bat



Goxokizko kanoia.



Animalien buru-hezurren postu bat.



Egurrezko artisau produktuak.



Suak Lekunberriko plazan.
Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea



Ikuskizuna Lekunberriko plazan.
Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea

AZKARATE



Argazkiak: Ane Ubegun

ARRIBE



FESTAK



Argazkiak: Ane Ubegun

ASTITZ




Argazkiak: Arantxa Mikeo

ATALLU



Argazkiak: Izan Zubillaga

ERRAZKIN



Argazkiak: Oier Goñi

Albaitaritza
baserriarren zerbitzura

Alaborro Ind., 31860 Iruztzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343

TALLERES GOÑI
CHAPA Y PINTURA

- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM

AZPIROTZ




GORRITI



Julio Sotoren omenaldiko une bat.
Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea

ODERITZ




Argazkiak: Iker Uruga

UZTEGI



Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea



Argazkia: Agurtzane Altuna

LEZAETA



Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea

IRIBAS



Argazkiak: Juan Antonio Garaikoetxea

Nekazari Eguna
Lekunberrin


Irailaren 1ean gauzatu zen Nekazari Eguna Lekunberrin eta arrakasta itzela izan zuen. Behorrak Mazo Etxetik eta Saldotxotik hurbildu ziren Lekunberriko anfiteatro ingurura eta ondoren, zaldien erakusketa eta salmenta hasi zen. Bitartean, Mendialdeko Azoka Ibiltaria alboan zegoen eta ikatz txondorra agerian egon zen egun osoan zehar, ikatza ekoizteko ohitura berpiztuz. Horretaz gain, behiak eta astoak ikusteko aukera ederra ere izan zen eta gosea saihesteko zaldi pintxoak eta taloak eskuragarri zeuden. Egun lainotsua zirudien arren, eguzkia atera eta giro aparta osatu zen.




Gurutzeen eguna.
Argazkia: Santiago Garisoain.

Gurutzeen
Eguna Aralarko
San Migel
santutegian

Irailaren 1ean, Gurutzeen Eguna ospatu zen San Migel santutegian. Uharteko bide-gurutzean hasi zen eguna eta ondoren penitentzia ospakizuna egin zen. Beranduago meza ospatu eta ekitaldia amaitu zen.



Nekazari Eguneako behorrak



Behorren erakusketa.
Argazkia: Ane Ubegun

San Fermin eguneko
Erromeriari Azkaraten

Urtero bezela herritik Baselizarainoko bidea oiñez egin zen Iñaxio Azkoaga apezarekin, Laja eta Lutxurdio trikitilariekin, eta Sebastián Lizaso eta Aitor Mendiluze bertsolariekin. Herritarrak eta inguruetatik etorritako hainbat jende bertan bildu zelarik. 17 gradu eta eguraldi politarekin girotu zen eguna.



Azkarateko erromeria. Argazkia: Joxe Mari Zabaleta

MOTZ-MOTZEAN

VERONICA SATRUSTEGI

Zer ote da
"heziera onekoa"
izatea?

Gurean argi ditugu hainbat ezaugarri: puntualtasuna, adinduei eserlekua ematea garraioan, etab., etab., etab.

Aurrekoan gaiari heldu genion Perun gauden alemaniar batek eta biok. Berak sei hilabete luze daramatza herrialdean. Baina tira, gatozen harira. Egia da puntualtasuna, orokorrean, ez dela perutarren indargunea. Hori hala da. Niri, alemaniarrari bezainbeste (edo, beno, ez horrenbeste agian), haserretzen nau horrek. Hark gogor kritikatzeko jarrera hau Alemanian ezinezkoa delakoan. Estereotipoei jarraitu eta Espainian ere halakoxea ei da jendea haren ustetan. Siesta luzeak botatzen direla eta sangria edan.

Hortxe ikusi nuen: "heziera onekoa" zaiguna orokortzeko joera dugu. Niretzako X denak, denentzako behar al du X, bada?

Elkarrizketa hartan beste puntu bai maigaineratu nuen gaiari buruz hausnartzeko. Adibidez, zuentzako zer da ohikoena etxera norbait gonbidatzen duzuenen? Jateko edota edateko zer bait eskaintzen diezue? Nik baietz esanen nuke, orokorrean gurean eskaintzeko joera dugula. Bada, hemen, Perun, ere bai. Deus ez eskaintzea "heziera txarrekoa" da.

Hortxe alemaniarrak hartu zuen "kolpea". Ezetz, deus ez eskaintzea normala omen. Zergatik eskaintzen behar diot ezer?, zioen.

Hari horretatik tiraka ibili ginen eta hausnarketa dotorea egin daitekeela uste dut halako txikitasunetatik abiatuta. Guretzat ohikoa, araua, hegemonikoa dena ez baitu zertan beste-entzako hala izan behar.



SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

TAXILON
Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Atallu - Arantz



Lagun onak gehio bizitzeko

Beti entzun dugu zorionaren gakoetako bat pertsonen arteko harremanak direla (lagunak, familia, bikotekidea...), azken finean, animalia sozialak gara. Baina gaur esatera natorkizue hori zientifikoki baieztatu dela, hitz egitera natorkizuen ikerketa bati esker.



Harvardeko unibertsitatearen ikerketa batek 200 subjektu baino gehiago aztertu zituen hamarkadetan zehar (1938an hasi ziren eta emaitzak 2022an argitaratu ziren) eta, pentsa daitekeenaren kontra, zoriontasuna ez dela lorpen profesionaletan, diruan, ariketan edo dieta osasuntsu batean oinarritzen aurkitu zuen. Ikerketaren 8 hamarkadetan egindako aurkikuntzen arabera, harreman positiboak hain dira ahaltsuak, zoriontsuago eta osasuntsuago mantentzen gaituztela eta – gutxi balitz bezala – denbora gehiagoz bizitzen laguntzen digutela. Eta 1. gakoak, hain zuzen ere, bizitza sozial aktiboa izatea da, Harvardeko Medikuntza Eskolako psikiatriako irakasle Robert Waldingerrek, Harvardeko Helduen Garapen Estudioko zuzendariak, zehaztu dutenez.

Gizaki bakoitzak, izaki soziala eta gizabanakoa denez, ezin du bere kabuz behar duen guztia eman. Beste batzuek elkarri eragitea eta laguntzea behar dugu. Gure harreman-bizitzan, zazpi euskarri daude:

- ▶ Ikastea eta haztea: nork animatzen zaitu gauza berriak probatzera, arriskuak hartzera, zure bizitzako helburuak lortzera?
- ▶ Segurtasuna eta babesa: nori deituko zenioke arazoren bat baduzu? Krisi garai batean?
- ▶ Identitatea eta esperientzia partekatua baieztatzea: Ba al dago zure bizitzan zurekin esperientzia asko partekatu dituen eta norena zaren adierazten laguntzen dizun inor?
- ▶ Hurbiltasun emozionala eta konfiantza: nork daki dena (edo gauza gehienak) zuri buruz? Nori dei diezaiokezu gaizki sentitzen zarenean eta zintzoa zarenean nola sentitzen zaren?
- ▶ Intimitate erromantikoa: Pozik al zaude zure bizitzako intimitate erromantikoarekin?
- ▶ Laguntza (teorikoa eta praktikoa): norengana jotzen duzun arazo praktikoa bat konpontzeko esperientzia edo laguntza behar baduzu (errezeta bat, etxean zerbait konpontzea)?
- ▶ Dibertsioa eta erlaxazioa: nork egiten dizu barre? Nori deitzen diozu pelikula bat ikusteko edo errepide bidaia bat egiteko konektatuta eta gustura sentiarazten zaituenarekin?

Baina, suposatuko zenuten bezala, ez du edozein harreman sozialek balio, kalitatezkoak izan behar dute. Izan ere, harreman toxikoek kontrako eragina dute. Beraz, kalitate-harreman horien alderdi garrantzitsuak azpimarratuko ditugu. Adibidez, jakin-mina, gaur egun arreta eskaintzeko benetako desio gisa ulertuta, baliagarria izan daiteke aurreiritziak saihesteko eta intimitatea eta irekitasuna bultzatzeko. Harremanetan konpromisoa lortzeko ezinbesteko bi elementu.

Zentzu horretan funtsezko beste ideia bat afektu fisikoa da, beldurra baretzeko, antsietatea murrizteko eta min-sentsazioak gutxitzeko ahalmena izatera iritsiz. Egileek honako hau ondorioztatzen dute: «Beste pertsona batzuekin ditugun kontaktuen maiztasuna eta kalitatea dira zoriontasunaren iragarle nagusietako bi».

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

AMARU bar
ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK
948504352

Antsonea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Utegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

aseguru gintza XXI

ASEGURU AHOLKULARIAK
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

▶ aseguruak@aseguruak.eus
▶ 943 65 22 20
▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

HOSTAL BETELU

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta
pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09

Atabal
okinologia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etkez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

Ibai Soroa eta Iker Vicente berriro ere Sunbillako irabazleak

Ibai Soroa arribetarrak eta Iker Vicente otsagabiarrak Ramon Latasa aizkolariaren omenez Sunbillan XXI. aldiz jokatuak lehia irabazi zuten, abuztuaren 11n. 30 minutu eta 49 segundoan amaitu zuten, Mikel Larrañagak eta Hodei Ezpeleta aurkariek 31 minutu eta 20 segundoan bukatu zuten. 40 graduko bero itogarria egin arren, Nafarroako bikoteak 54 hazbeteko hamar enbor eta 60 hazbeteko sei ebaki zituen 30 minutu eta 49 segundoan. Kiroleri trebeek aurreko urteko arrakasta errepikatu zuten.



Txapelketako parte hartzaileak, entrenatzaileak eta antolatzaileak. Argazkia: Ibon Errazu



Txapelketa irabazi ondoren. Argazkia: Ibon Errazu




Txapelketako une bat. Argazkia: Ibon Errazu

Iñigo Lasarte, Faltzesko X. Pilon Trail lasterketako irabazlea

Mendi lehiaketa honen hamargarren urteurrena zela eta, ehunka korrikalarik desnibelari eta beroari aurre egin zieten X. Pilon Trail lasterketa osatzeko. 300 kirolarik baino gehiagok eman zuten izena aurten, eta 16 km eta 650m-ko desnibelaren lasterketan, Iñigo Lasarte Lekunberriko korrikalari trebeak lehenengo postua bereganatu zuen 1 ordu 17 minutu eta 10 segundotan.



Iñigo Lasarte helmugara iristen. Argazkia: Beñat Barberena



Lasterketa amaitu ostean, domina lepoan. Argazkia: Beñat Barberena

MOTZ-MOTZEAN

OSKAR ESTANGA

Jendartearen botereak

Zeinen ederra udara, beste gauzen artean betiko ohituretatik ateratzeko tar-teak eskaintzen dizkidalako. Ederra ingurutik mugitzea eta beste leku batzuk ezagutzeko, etxea gehiago baloratzen ere laguntzen dit horrek. Ederra ere ohikoak ez ditudan pertsona taldeekin egunak partekatu ditzaketalako.

Pertsona talde hori zeren bueltan elkar-tzen den hain zait garrantzitsua! Aurreko astean kontaktuzko dantzaren bueltako kanpamentu batean egon naiz, eta gorputza landuta, nekatuta eta bihotza beta-betuta bueltatu naiz. Kontaktuzko dantza da elkartzen gaituen hizkuntza, baita elkarren zaintza, espazioaren zaintza, etab.

Alde batetik, elkar ukituz dantzatu ahal izateak errespetu berezia eskatzen du, norbere buruarekin konektatuta egotea, lasai, landua, norbere denborari barne kontzientzia hartzeko denbora dedikatuta, txukuntasuna eta atsedena zainduz... Besteekin kontaktuan berriz inongo helbururik gabe aritzea, bestea behartu gabe, bere mugimendu eta erabakiak errespetatuz...

Kanpamentuari zegokionez, zerbait ordaintzen genuen eta janaria, lo egiteko lekua, dutxak, sauna, dantza lekua etab barne genituen, baina baziren lanak denon artean egin behar genituenak. Nik adibidez, komunak zaintzen nituen, papera zegoela ziurtatu, txukundu, etab. Eta ekintzei zegokionez ere, denon artean erabakitzen genuen zer egin, adostu-takoa aurrera atera, etab. Egunero elkar-tzen ginen hitz egiteko, bideratzeko, nola sentitzen ginen partekatzeko...

Jendea benetan konprometitu sentitu dut, egoera deserosoak eman direnean ere hitz egiteko prest, asko disfrutatzen... Umeak ere bazeuden, haien presentzia taldean onartua sentitu dut... Horrelako esperientziak gizakiarengan konfiantza handia baieztazen didate, taldean egoteko zailtasunak testuinguru egoki batekin ongi eraman daitezkeela ziurtatzen zait. Hitzaldi batean garatzen genuen bezala, bakoitzaren botereak taldearen zerbitzura jarri, bakoitza zainduz, esperientzia ederrak posible dira. Jarrai dezagun ba taldearen boterea zaintzen eta garatzen!



EL EUSKERA TE ESTÁ LLAMANDO

ARAITZ-BETELUKO IKA EUSKALTEGIA

eusgara errazago egiten

Maila guztiak
Talde presentzialak/
Autoikaskuntza
Ordu-tegi malgiak
Dirulaguntzak / BECAS

948 61 07 76 - 699 70 49 51
leitza@ika.eus

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotaidea 19,
Lekunberri
MARTILO TXIKI
www.martilotxiki.com
679 938 016

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA
URZUBI S.A.
Lekunberri
Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20
urzubi@hotmail.com

TAXI SOROIA
609 168 217
Bederatzi plaza

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

“Garaipen hau urteetako ahaleginen emaitza izan da, nazioarteko nire lehen lorpen handia”

Angel Ayestaranek lehenengo postua lortu du Gasteizen jokatzeko CEI kategoriako izar bateko 100 kilometroko zaldi lasterketan. Lehiaketan izan zituen esperientziak, prestakuntza sakona eta inguruko babesaren garrantzia nabarmendu ditu kirolari gazteak.

Nola sentitu zara saria irabazi ostean?

Pozik sentitzen naiz, ez dago beste sentimendurik. Irabazi nuenean gogotsu ospatu nuen, baina lehenagotik ere banekien aukera asko nituela irabazteko. Garaipen hau urteetako ahaleginaren emaitza izan da, nazioarteko nire lehen lorpen handia, eta egindako lan guztia erakusten du. Eta bueno, ongi egindako lanaren saria da niretzat.



Angel zaldiarekin. Argazkia: Angel Ayestaran

Zertan datza lasterketa?

100 kilometroko lasterketa zen, lau fasetan banatua. Lehenengo biak 30 kilometrokoak, eta azkeneko biak 20 kilometrokoak. Erdian atseden pixka bat egiten da, 40 minutukoa, eta zirkuitua egin, fasea bukatu eta itzulia amaitzen dugunean, albai-tariak zaldiari ikuskapen bat egiten dio. Pultsazioak neurtzen dizkio, ea ongi aritu den trostan, erren ez dagoela begiratzen du, eta, azkenik, hidratatua dagoela ziurtatzen. Behaketa egin ostean, zaldiak arazorik badauka, lasterketatik kanporatzen gaituzte, eta ongi badago, lasterketan jarraitzen dugu.

Nolakoa izan zen prestaketa prozesua?

Zaldi honekin duela urte bat hasi nintzen prestatzen; lasterketaren egunean zaldiak urte bat bete zuen gure etxera etorri zenetik. Eta bueno, prestakuntza... Astero hiru lau aldiz entrenatzen genuen eta lasterketa hau egin baino lehen, aurretik beste lau lehiaketatan parte hartu genuen: lehenengo biak Zaragozan egin genituen, 80 kilometroko lasterketak; hi-

rugarrena Portugalen, Elvas hirian zehazki, eta bestea Ademuzen; biak 100 kilometroko lasterketak izan ziren. Nire ustez, astean lau aldiz entrenatzea izan da prestakuntzaren gakoa, baina ez intentsitate handian; entrenamendu garrantzitsuenak lasterketak ziren, eta tartean zaldiari atseden luzea uztea, ongi zaintzea eta ez nekatea ezinbestekoa izan zen lasterketara arin iristeko.

“Kirol hau ‘zaldiaren zerbitzurako’ dela esaten da; lanaren zati oso txikia da zaldi gainean ibiltzea”

Izan zenuen erronkarik lehiatzen?

Ez, lasterketan ez, baina prozesuan bai. Zaldi oso kaskagorra eta zaila da. Nire bi lagunei eta niri lurrera bota gintuen behin baino gehiagotan. Zaldi konplexua da, eta ausardi handia behar izan genuen gainean jartzeko. Eta bueno, pazientzia handiarekin eta denbora igaro ahala, azkenen lasaitu zen.

Zer estrategia izan zenuen lehiaketan?

Zaldi honek izaera gogorra dauka, eta hasieran, bere erritmora joaten utzi nion. Laster hasi zen korrika: lehenengoak hasi eta lehenengoak bukatu genuen. Oso azkar hasi ginen, eta jada lehenengo 10 kilometroetan



Lasterketako une bat



Angelek lasterketako txapela bere amonari oparitu zion unea

“Nire ustez, urduritasunari aurre egitea eta lasai egotea dira lehiaketan arrakasta izateko giltzarriak”

eta lasterketara atera nintzen unean lasaitu nintzen.

Zer rol izan zuten zure entrenatzaileek eta zure ingurukoek prestaketan?

Entrenatzailea ni neu naiz; duela bi urte hasi nintzen erabaki gehiago hartzen. Lehenago, nire aita zen arduraduna zuena. Hala ere, gaur egun, beti egoten da zaldiekin, ni baino gehiago. Egutero joaten da janaria eramatera, zauriak sendatzera, ukuluak garbitzera... dena egiteko prest dago beti. Nire aita ukuluaren %80 dela esan dezakegu, berak egiten du lan garrantzitsua. Beraz, zutabe oso garrantzitsua izan da prestakuntza honetan guztian.

Ni lan honen guztiaren osagarri bat izan naiz. Frantzia egon nintzen zaldiekin lan egiten zalditeria profesional batean, eta asko ikasi nuen. “Escola berriko” ikaskuntzak izan direla esan dezakegu, eta ikuspuntu mo-



Lasterketako saria irabazi ondoren

“Prestakuntzaren gakoa astean lau aldiz entrenatzea izan da, baina ez intentsitate handian”

derno hori oso baliagarria izan zaigu. Aipagarria da ere inguruko jendearen laguntza, oso garrantzitsua baita lasterketa batean aurrean joateko. Askotan Valentziara, Frantziara, Kataluniara, Galiziarra edo Portugalera joan behar dugu lasterketan lehiatzera, eta lau pertsonen laguntza beharrezkoa da prozesu guztian, eta laguntza hori asko eskertzen da; haiek gabe ezingo nuke lasterketaren parte hartu.

Zeintzuk dira zure hurrengo helburuak?

Maila on bat lortzea gustatuko litzaidake, maila erdi profesionalen aritu eta hipikaren munduan pixka bat ezaguna izan. Baina daukadan ilusioa ez galtzea da garrantzitsua niretzat.

Zerbait gehiago aipatu nahi duzu?

Agian garrantzitsua da esatea askotan kirol honek aurreiritzi mordoa sortzen duela, baina ezagutzen gaituztenek badakite kirol honek ikusten ez den lan handia duela atzetik eta zaldiekin ordu ugari igarotzen ditugula. Izan ere, esaten da kirol hau “zaldiaren zerbitzurako” dela. Zaldi gainean ibiltzea lanaren zati oso txikia da, beste guztia ez da ikusten, ukulu asko garbitu behar dira, jan asko eman, eta abar. Pazientzia, zaintza eta dedikazioa eskatzen dituen kirola da.

“Nafarroako Herriarteko Txapelketa irabaztea lorpen garrantzitsua izan da, eta esanahi handia du”

Baztan eta Larraun dira jada Nafarroako Herriarteko 54. Txapelketako irabazleak Uztailaren 7an Labrit pilotalekuan jokatu zen finala, eta giro ezin hobea izan zen bertan, 700 ikusle baino gehiagorekin.



Iñigo Gurrea, Aitor Eguzkiza eta Lukas Navarro, Lekunberriko pilotalekuan



Nafarroako Herriarteko Txapelketako irabazleak.
Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea

Nolako izan zen prestakuntza prozesua?

Iñigo: Ez genuen ezer zehatzik landu, baina egia da taldeka antolatzen ginela prestakuntza prozesuan. Azkenean, Aitor, Lukas, Endika eta gainerakoak jubencil mailakoak dira, eta kategoria horretan erabiltzen dituzten pilotak desberdinak dira. Entrenatzeko beren ordutegia zuten, eta haiek amaitu bezain laster Iñaki, Oinatz, Migel eta ni joaten ginen frontoira, gure pilota bereziekin entrenatzera. Egia da prestakuntza oso antzekoa izan zela eta aldatzen genuen gauza bakarra pilota zela. Garrantzitsua da pilotak ez nahastea; azken finean haien pilotak arinagoak dira, eta errazago mugitzeko aproposak.

Zer esan nahi du zuentzat Nafarroako Herriarteko Txapelketa irabazteak?

Iñigo: Txapelketa irabaztea urte osoan dugun helburu nagusia eta garrantzitsua da.

Aitor: Guretzat, irabazteak asko esan nahi du. Nire ustez, klubarentzat helburu handiena da; bueno, Euskal Herrikoa ere bai, baina hori beste istorio bat da...

Iñigo: Bai, arrazoi duzu Aitor, baina Euskal Herriko Txapelketan parte hartzeko, Nafarroako lehiaketa irabazi behar da, beraz... Orain, guretzat baliorik handiena duena Nafarroako Herriarteko Txapelketa da... Azkenean, irabazteak ilusio ikaragarria egin digu, eta aurten hala izan denez... bada, guretzat garrantzitsua eta zirrargarria izan den poztasun sentimendu horrekin gelditzen gara.

Nola sentitu zineten txapelketan? Gogoratzen duzue une berezirik?

Aitor: Ni Atarrabiako partidaz oroitzen naiz... Erraz irabazi behar genuela pentsatzen genuen, baina egun hartan, oso gaizki eta triste jokatu

“Ez genuen ezer zehatzik landu, baina egia da taldeka antolatzen ginela prestakuntza prozesuan”

“Txapelketa irabaztea urte osoan dugun helburu nagusia eta garrantzitsua da”

Iñigo Gurrea

“Guretzat, irabazteak asko esan nahi du, klubarentzat helburu handiena da; Euskal Herrikoa ere bai, baina hori beste istorio bat da”

Aitor Eguzkiza

nuen. Azkenean, justu-justu, baina galdu egin genuen. Horrek ez zuen ezer txarrik eragin, txikiek beste partidak irabazi zituztelako eta, beraz, ongi sentitzen nintzen, baina aldi berean, gaizki.

Iñigo: Bai, Aitorrek esaten duen bezala, badaude partida txarrak, baina azkenean talde handi bat gara, hiru maila desberdinez osatua, eta bik irabazten badute, puntua guretzat da. Eta bueno, badaude partida txarrak, Aitorrek egun horretan gaizki jokatu zuen, baina nik beste egun batean... Azkenean dena perfektua izatea ezinezkoa da; egunero bikain jokatzeko oso konplikatu dela uste dut.

Lukas: Bai, nik ere hala pentsatzen dut; parte hartu ez arren, kanpotik hainbat partida ikusi nituen eta lehiaketa oso interesgarria izan zen. Une bereziz eta hunkigarri gozatzeko aukera izan nuen, adibidez, lehenengo partida galtzen zutenean. Horrek esan nahi zuen hurrengo bi partidak ezinbestean irabazi behar zituztela, eta orduan zirrara eta interesa areagotu egiten ziren. Txapelketa hunkigarria izan da, benetan.

Iñigo: Bai, batek galtzen bazuen, derrigorrezkoa zen hurrengo bi partidak irabaztea aurrera jarraitzeko. Erronka polita baina zaila izan zen.



Pilota partiduaren une bat.
Argazkia: Iñigo Gurrea



Labrit pilotalekua.
Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea



Aitor Eguzkiza. Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea

Zer indargune eta trebetasun dituzue?

Aitor: Indarguneetako bat kadeteen konstantzia da. Egia da batzuetan partidaren bat galtzen dutela, baina aurkariak oso-oso onak direnean. Bestela, badakigu beti ongi jokatuko dutela eta irabazteko aukera handia dutela; izan ere, oso trebeak dira. Iñigo: Lehen aipatu bezala, batzuetan une zailak izaten dira; ikusten badugu gure taldeko bat gaizki jokatzen

ari dela, animatzen saiatzen gara... Nire ustez, elkarlana da gure trebetasuna. Elkarrekin une oso onak eta txarrak igaro ditugu, eta hori gaitzetzeko asko indartu gaitu, eta trebetasun horri esker lortu dugu saria.

Zer alderdi izan ziren funtsezkoak garaipena lortzeko?

Iñigo: Nire ustez, pilotan estrategiak gauzatzea oso zaila da. Bai adostu dezakegula pilota ezkerrentzat botatzea,



Irabazleak Txapelketaren amaieran. Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea

“Ni Atarrabiako partidaz oroitzen naiz... Erraz irabazi behar genuela pentsatzen genuen, baina egun hartan, oso gaizki eta triste jokatu nuen”

Aitor Eguzkiza

ere, beti luntxa prestatzen zuten partidu bukaeran eta aldiro giro zoragarria sortzen zen.

Aitor: Gure herritarren indarra ere aipatzekoa da. Finala jokatu zen egunean Doneztebeko pilotariak asko animatzen zituzten hango herritarrek, baina gu pilotalekura atera bezain laster, gure herritarren babes oihuen eta animo zirrargarrien indarra ikaragarria izan zen. Une horretan bertan nabaritu nuen irabazi genuela.

Zertan lagundu dizuete ingurukoek prozesu honetan guztian?

Lukas: Bueno, azkenean jende asko parte hartu du txapelketa honetan, hainbat guraso etorri dira laguntzera eta antolatzaera, eta oso eskertuta sentitzen gara. Gainera, nire ustez, Abel Barriola, gure entrenatzailea, oso garrantzitsua izan da prozesu guztian. Azkenean, urte osoan entrenatu gaituen pertsona izan da, eta haren laguntzari esker txapelketara ongi prestatuak iritsi gara.

Iñigo: Nabari da maiatzean jada Herriarte Txapelketa hasten dela, eta apirila-martxoan inguruan beste erritmo eta indar berezi batekin entrenatzen gaitu. Hori asko eskertzen dugu, batzuetan nekatuta edo gogorik gabe etortzen garelako, eta bera beti hor dago sentitzen dugun

“Parte hartu ez arren, kanpotik hainbat partida ikusi nituen, eta lehiaketa oso interesgarria izan zen”

“Larraungo komunitateak lan handia egin du partiden datuak zabaltzen, non, noiz eta zeinen aurka jokatzeko genuen adierazten”

Lukas Navarro

pisu hori kentzeko eta ahal dugun hobekien jokatzeko laguntzeko, eta hori oso garrantzitsua da guretzat. Gainera, ia herri guztia etorri zen finala ikustera, kuadrillakoak, familia Ez dago hitzik hori azaltzeko.

Urte osoan gurekin daude, eta beti galdetzen digute ea noiz jokatu behar dugun Lekunberrin... Aurten, sanferminetan iritsi ginen finalera, Iruñeko Labrit pilotalekuan, parranda giroan... Une zoragarria eta aproposa izan zen, eta ia denak ikustera etorri ziren. Bertaratu ziren guztiei asko eskertzen diegu egindako guztia; eskaini diguten babesa ezinbestekoa izan da aurrera jarraitzeko.

Eskertuta sentitzen zarete herritarrekin, beraz?

Lukas: Nik azpimarratu nahi dut txapelketa kanpotik ikusi arren, ez dudala partidarik galdu, eta esan dezaket finaleko egunean izugarri nabaritu zela herritarren babesa. Inguruko jende asko joan zen ikustera, eta parte hartzea bikaina izan zen. Oso polita izan zen.

Iñigo: Eskerrak eman nahi dizkiegu herritar guztiei; ez da bi hilabeteko gauza izan, baizik eta urte osoko prestakuntza fisikoa. Egoera desberdinei eta gorabeherei aurre egitea lortu dugu, eta zorionekoak sentitzen gara. Txapela herrira ekartzea opari bat izan da, eta espero dugu beste urte batzuetan errepikatzeko aukera izatea eta berriro ere festa on batekin ospatzea.

pilota batekin gehiago jokatzeko, eta horrelako mila txikikeria, baina partidu barruan, ahalik eta hobekien jokatzen saiatzen gara eta uste dut beste estrategia guztiak alde batera uzten ditugula. Guretzat garrantzitsua da 22ra iristea da, ahal den moduan.

Nola erreakzionatu du Larraungo komunitateak garaipenaren aurrean?

Lukas: Larraungo komunitateak lan handia egin du partiden datuak zabaltzen, non, noiz eta zeinen aurka jokatzeko genuen adierazten. Tratua bikaina izan da; gainera, finaleko eguna oso polita izan zen, dena oso ongi antolatuta zegoen.

Iñigo: Bai, autobusak antolatu zituzten, eta afarian jende ugari zegoen arren, dena oso ongi antolatu zuten. Horrelako babesa guretzat plazer handia da, etxeko partidetan batez

▶ KONTU TXIKIAK

PLAZAOLA KIROLGUNEKO

KIROL IKASTAROAK-Kirola egiten hasi nahi duzu? Ez ahaztu irailean matrikula doakoa dela, beraz, ikastaroei begiratu bat eman eta nahi baduzu, gustuko dituzun kirol-ekintzak aukeratu.-Web orrialdea: <https://labur.eus/6bgAj> -Posta elektronikoa: plazaola-kirolgunea@gmail.com -Telefono zenbakia: 948 50 73 77. (Informazio gehiagorako Plazaola Kiroldegian eta Kirol Mankomunitatean)

AUTOZAINZA-Teknoadineko Landalab Proiektuak sustatutako sare publiko- komunitarioa da eta landa eremuetan bizi diren bizilagunen arteko zaintza bultzatzen jarraitu nahi du. Proiektuaren helburuak bakardade ez hautatuan dauden pertsonengana hurbiltzea, haien bizi kalitatea hobetzea eta herri lagunkoia sortzea dira. Zakan Sozial kooperatibak zabalduak eta Altsasu, Olazti eta Ziordiako Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean, Etxarri Aranatzeko zonaldeko Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean eta Irurtzungo zonaldeko Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean garatutako Nafarroako Gobernuak diruz lagunduta eta Europar batasuna-Next-Generation EUk finantzatuta, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean (PRTR) oinarritutako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez. Informazioa gehiago nahi baduzu, sar zaiten hurrengo QR kodean:



BULARREKO MINBIZIAREN AURKAKO IBILALDI SOLIDARIOA ETA DOKUMENTALA LEITZAN-

Lekunberrin bizi den Izaskun Iparragirrek, bularreko minbiziarekin duen esperientzia elkartasunerako motor bihurtu du. Urriaren 18an “Bularretik ehundutako aitortzak” dokumentala estreinatuko da Leitzako Herri Aretoan, 18:00etan eta 20:00etan. Hurrengo egunean, urriaren 19an, jardunaldi solidarioa egingo da Leitzan, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna dela eta. Ekitaldietan parte hartzeko, zuzenean joan zaitezke edo aldeztatik izena eman dezakezu 22l elkartearekin

harremanetan jarritz. Gainera, elkarteari dohaintzak egin ez lagundu daitezke.

DISCGOLFSCENE-Eman izena irailaren 1a baino lehen discgolfscene.com webgunean eta parte hartu Munduko Amateur Txapelketako *Halo Rollo* baten zozketan.

▶ AGENDA

IRAILA

8 - Mendialdeko azoka Ibiltaria Leitzako herriko plazan.

9 - 3 Sormen tailerrak 5 urtetik gorakoentzat. Izena ematea eta ekintza: Mitxausenean, Lekunberrin.

13-14-15 - Etxarriko festak.

14 - Gaintzako Kable Eguna eta behatokiaren inaugurazioa. Gaintzan, Araitzen.

20-21-22 - Arruizteko festak.

21 - Kaña Fest II, The Blackening, Lepora eta Mendeku musika taldeen kontzertuak. Printzan, Lekunberrin.

26-27-28-29 - Uitziko festak.

27-28-29 - Baraibarko festak.

29 - Nafarroako Sagardo Eguna Lekunberrin.

URRIA

5 - 18:00 Ene Kantak-en saioa, Mailoperen alde. Lekunberriko kiroldegian.

7-8 - Disc Golf Aralar erronka. Lekunberrin.

* FESTEN EGITARUA KONTRAZALEAN.

Euskara eroso bizitzeko

aek
euskara praktikoa

Larraungo AEK
EUSKARA-IKASTAROAK

- Maila guztiak
- Guraso taldea 5/6 ordu astean
- EGA azterketa prestatzeko ikastaroa
- SAKONTZEN (arauak berrikusi, ohiko akatsak zuzendu...)
- Taldea edo autoikaskuntza
- Mintzakide egitasmoa (Mintzapraktika egiteko taldeak)

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA
948 604 704 edo 607 622 102 | larraun@aek.eus

Izena eman irailaren 23a baino lehen | Artzanegi 6, Lekunberri

DIRULAGUNTZAK

Iparraldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak

Festak

ETXARRI

Irailak 13, ostirala

19:00 Suziria
19:30 Trikitixa
20:30 Giro musikatua dantzalekuan
21:30 Pintxo afaria
22:30 Kontzertuak: EDU ZARDOYA eta IGITAIA
Ondoren DJ HAIZETA

Irailak 14, larunbata

11:30 Bordetara oinez
12:00 Erronda Bordetan
15:00 Erronda herrian zehar
18:00 Puzgarria eta ludoteka jolasak
20:30 Dantzaldia MUXUTRUK taldearekin
22:00 Pintxo afaria
23:30 Dantzaldia MUXUTRUK taldearekin
Ondoren DJ OIXANI

Irailak 15, igandea

12:00 Pilota partidak Arotzenean
14:00 Herriko bazkaria
17:00 Haurrentzako jolasak
17:30 Mus txapelketa

UITZI

Irailak 26, osteguna

18:00 Txupinazoa
18:15 Toka lehiaketa
19:30 Patata tortila txapelketa
21:00 Tortila dastaketa musikaz alaitua

Irailak 27, ostirala

12:00 Marianittoa
14:00 Gazte bazkaria
17:00 Mus txapelketa (10€ bikoteko)
17:00 Puzgarriak
18:00 Txapel jaurtiketa
20:00 Dantzaldia Oixani DJarekin
22:00 Afaria Merkualede elkartean
00:00 Dantzaldia Gabezin taldearekin
Ondoren Oixani DJ

Irailak 28, larunbata

10:00 Dianak Larraun eta Lekunberriko txistulariekin
12:00 Larraun pilota eskolako haurren pilota partidua eta afizionatu mailako partidua
14:00 Herri bazkaria
16:00 Puzgarriak

17:00 Herri kirol saioa
18:00 Txokolate bero jatea
18:00 Tardeoa Mai soinujolearekin
20:00 Dantzaldia Oixani DJ arekin
21:00 Barrikotea
00:00 Bambola diskojaia Maria López DJ arekin

Irailak 29, igandea

10:00 Aurora eta etxez etxeko erronda
11:30 Hamaiketakoa
12:30 Aizkora apustua eta harri-jasotzailea
14:00 Aurora erronda Eztanda txarangarekin
17:00 Puzgarriak
20:00 Azken Brindisa
00:00 DENAK LOTARA

BARAIBAR

Irailak 27, ostirala

17:00 Festa hasiera
17:15 Kiki Koko eta Moko pailazoak
18:30 Puzgarriak
Ondoren, txokolatada
20:30 Barrikotea

Irailak 28, larunbata

11:00 Erronda etxez etxe trikitilari eta bertsolariekin
Ondoren, puzgarriak
18:30 TRIKIDANTZ
21:00 Zezen suzkoa
21:30 Herri afaria
Ondoren, bingoa

Irailak 29, igandea

11:00 Meza nagusia
12:00 Hamaiketakoa
12:30 Aizkolariak
16:30 Pilota partidua
18:00 Mus txapelketa
18:00 Puzgarriak
20:30 Zezen suzkoa

Trikitilariak

Ane Etxezarreta eta Ekhi Iribarria

Aizkolariak

Enero Saralegi - Julen Kañameres

Arkaitz Etxebeste - Ibai Soroa

Bertsolariak

Julio Soto ta Oihana Iguaran